

HERRIKO KIROL KLUBENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ARAUDIA

Artezkaritza Kontseiluak 1999ko abenduaren 2ko 99/8 ohiko saioan onartua.

Ekainaren 11ko Euskal Herriko 1998/4 Kirol Legearen 2. artikulua dio kirola interes publikoko gizarte-jarduera dela, pertsonak bete-betean prestatu eta garatzeko, bizikaltatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria alegia. Horrez gain, herri-boterei, nori bere eskumenean, agintzen die herritarrek kirola egiteko duten eskubidea bermatuko duten kirol-politikak garatu ditzatela.

98/14 lege horren 5. artikulua arabera, **lurralde historikoetako foru organoei** dagokie besteak beste hurrengo eskumen hau gauzatzea:

- g) Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteak beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzen dutela kontrolatuko da.

Horrez gain, ekainaren 11ko Euskal Herriko kirolari buruzko 98/4 lege horren 6. artikulua dio **udalerriei dagokiela**, nori bere lurralde esparruan, hurrengo eskumen hauek betetzea:

- a) Lurralde historikoetako foru-organoei onartutako eskola-kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatzuz.
- b) Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, bai eta kudeatzea eta mantentzea ere.
- c) Kirol-ekipamenduen hirigintza-plangintza egiteko tresnak onartzea eta gauzatzea.
- d) Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzea.
- e) Lurralde historikoetako foru-organoei kirola guztientzat zabaltzeko onartutako programak gauzatzea.
- f) Udalaren kirol-ekipamenduen errolda bat onartzea eta eguneratzea.
- g) Lege honen, gainontzeko legezko xedapenen eta lege hau garatzeko arauetan diren eskumen eta egitekoak baliatzea, bai eta eskuordetzan eman dakizkienak ere.

Aurrekoa gorabehera, Santurtziko Udaleko Kirol Institutuak **2016. URTEAN HERRIKO KIROL KLUBENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN ARAUDIA** ezarri du, aldez aurretik gogoeta eginda eta Artezkaritza Kontseiluak onartuta. Hori guztiori kirol-sistema hobetzen laguntzeko helburuz eta irabazi asmorik gabeko kirol-elkarteen koordinazio, laguntza eta sustapenen bidez, zein tokiko administrazioak kirol arloan ematen dituen erabilgarritasun publiko eta interes sozialerako zerbitzuaren osagarriak diren.

1. artikulua. HELBURUA:

1.- Honako araudi honen helburua Santurtziko udalerriko klub eta kirol-elkarteentzako **diru-laguntza ekonomikoak arautzea** da

2. artikulua. JASOTZAILEAK:

Diru-laguntzen jasotzaileak Santurtziko Udaleko Auzo Elkarteetako eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Elkarteetako erregistroetan izena emanda dauden irabazi asmorik gabeko kirol klub eta bestelako erakundeak izango dira.

3. artikulua.- INDARRALDIA:

Honako araudi hau 2.000. urtean eta hurrengoan ezarriko da, eskumendun organoak berau aldatzen ez duen bitartean.

4. artikulua.- PROZEDURA:

Orokorrean diru-laguntza ekonomiko eta materialak emateko bi modu daude: zuzenekoak (honetan administrazioaren publizitatea kanpo geratzen da, onuradunak izenez esleitzen direlako KUIko aurrekontu nagusietan) eta lehiaketa-araubidearen bidezkoak.

5. artikulua.- EREMUAK EDO DIRU-LAGUNTZA MOTAK

Honako araubide honek hurrengo eremu edo diru-laguntza mota hauek ezartzen ditu:

1. Diru-laguntza orokor arrunta.
2. Diru-laguntza berezia.
3. Kirol-eskola espezifikotarako diru-laguntza.
4. Ekitaldi, txapelketa edo lehiaketetarako diru-laguntza.

6. artikulua.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Diru-laguntza eskatu nahi duten erakundeek honako araudi honen eranskinetan dagoen eskari orri ofizialarekin batera, hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Diru-laguntzaren xedea den ekitaldiari buruzko proiektu zehatza, non hurrengo hauek agertu beharko diren:

- Kirol-proiektua (lehiaketa eta kategoriak, taldeak edota kirolari-kopurua, antolatzen dituen lehiaketa eta txapelketa, kolaborazioak, kirol-eskola generikoa edota espezifikoa, bazkide-kopurua, teknikari eta zuzendaritzako kideak eta abar).
- Jarduera zehatzaren deskribapena (hala badagokio).
- Gastu eta diru-sarreraren aurrekontu zehatza.
- Lortu nahi diren helburuak.

- Eskatzen den diru-kopurua eta horren arrazoia.
- b) Bizkaiko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- c) Bizkaiko Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak eta zuzenbide-publikoko gainerakoak egunean dituela egiaztatzen duena.
- d) Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia
- e) Hirugarrenen fitxa, honako araudi honen eranskinetan dagoen ereduarekin bat datorrena.
- f) Bizkaiko Foru Aldundian diru-laguntza eskatuz aurkeztutako eskaera-orriaren kopia, bere araudiaren babespean.

7. artikulua.- ESKABIDEA AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1. Aurrekontuen arabera, Santurtziko Udalak urtero egingo du araudi honetako diru-laguntzen deialdia, modalitate bakoitzari dagozkion kontu-sailean esleitutako zenbatekoak adieraziz.
2. Eskabideak Santurtziko Udaleko **Kirol Institutuaren administrazioko bulegoetan aurkeztuko dira inprimaki ofizialean** (Mikel Trueba kiroldegia, Reina Victoria pasealekua z/g – Santurtzi).
3. **Kirol-klub eta eskoletarako diru laguntza arruntak urtarril osoan eskatu ahal izango dira, 9,00etatik 14,00etara.**
Diru laguntza berezi eta torneo eta txapelketarako eskabidea, berriz, gutxienez eskaeraren xedea den jarduera hasi baino **BI (2) HILABETE lehenago** aurkeztu beharko da.

8. artikulua.- OSORIK BETE GABEKO EDO AKATSEN BAT DUTEN ESKABIDEAK

Eskabideak aipatutako betekizunak betetzen ez badituzte, interesatuei hamar eguneko epean, jakinarazpena jaso duten egunean zenbatzen hasita, antzemandako hutsak zuzentzeko eskatuko zaie eta hala egin ezean, eskabidea ezetsi egingo da eta eskaera izapiderik gabe artxibatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 92/38 Legea aldarazi zuen urtarrilaren 13ko 1989/4 Legearen 71.1 artikulua onorioetarako.

9. artikulua.- EBAZPENA

Diru-laguntzak eman edo ukatzeko Santurtziko Udaleko Kirol Institutuak hartutako ebazpenak arrazoituta egon beharko dira eta esku-dirutan emandako diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu beharko da.

10. artikulua.- DIRUZ LAGUNDUTAKO ERAKUNDEAREN BEHEBEHARRAK KUIren diru-laguntza jaso duen kirol-erakunde edo klubak diru-laguntza onartzean hurrengo baldintza hauek bete beharko ditu:

- Jarduera burutzea.
- Santurtziko Udalaren Kirol Institutuaren aurrean jarduera burutu dela justifikatu beharko da berau amaitu eta 30 eguneko epean hurrengo dokumentazioa aurkeztuz:
 - Hitzartutako edo diruz lagundutako jarduerari buruzko oroi-txostena.
 - Gastu eta diru-sarreraren azken zerrenda, diru-laguntzaren balioari dagozkion **gastuen legezko eta jatorrizko fakturak** eta gainerako

guztiaren kopia soila **erantsiz** (1), guzti-guztia zuzendaritza batzak onartuta.

- Jarduerarako prestatutako esku-orriak, kartelak, argazkiak, argitalpenak eta abar, baldin eta baleude.
- Beste erakunde publiko zein pribatu batetik, xede berarako diru-laguntzak jaso badira, berorien zerrenda eta zenbatekoa.
- Diru-laguntzaren emakida ebatzi zuen organoak egokitzat jotzen dituen egiaztapeneko kontrolak jasotzea; bai eta Ogasun eta Finantza Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ezartzen dituenak ere.

(1) Emandako diru-laguntza ezin izango da kirolariei ordaintzeko erabili, ez eta sari, arreta, protokolo eta janariak ordaintzeko ere.

11. artikulua.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Klub bakoitzak bankuko transferentziaren bidez jasoko duen zenbatekoa helburu horretarako KUIren aurrekontuetan esleitzen den diru-kopuruaren arabera izango da eta honako balorazio-irizpideak ezarriko dira beroriek banatzeko:

12. artikulua.- BALORAZIO IRIZPIDEAK:

12.1.- Diru-laguntza orokor arrunta (eskabide-eredua, 1. eranskinari jarraituz)

1. Klubaren garrantzia, bazkide kopuruan oinarrituta: 10 / 1,50 punturaino
2. Kirol-sustapenari egindako ekarpena:
 - a) Kirol-azpiegituran oinarrituta: 10 / 3,50 punturaino
 - b) 13 urtetik gorako bazkide-kopuruan oinarrituta: 10 / 5,00 punturaino.

12.2.- Diru-laguntza berezia (eskabide-eredua II. eranskinari jarraituz)

1. Diru-laguntzaren transzendentzia eta garrantzi soziala (igoera fasean parte-hartzea, kategorian igotzea, txapelketa jakin batera joatea, eta abar).
2. Kirola herritarren artean sustatzeko egindako lana.

12.3.- Ekitaldi, torneo edo txapelketetarako diru-laguntza


Ekitaldi edo txapelketak antolatzeagatik **gehienez berorren gastuen aurrekontuaren 2/3**, sortzen duen interes sozialean, parte-hartzean, erakartzen duen jende kopuruan eta abarrean oinarrituta.

12.4.- Kirol-eskola espezifikotarako diru-laguntza (eskabide-eredua III. eranskinaren arabera).

Kirol-eskola espezifikoa egiteagatik, egiaztatutako ikasle kopuruan, jarduera-programan, egitura teknikoan eta abarrean oinarrituta.

12.5.- Kirol-instalazio eta materiala erabiltzeko emakida eta kirolerako ez diren beste instalazio batzuk erabiltzeko emakida.

Dauden kirol-instalazioen egokitasuna eta zehaztasuna aintzat hartuta, KUIk klub guztien esku utziko ditu eurei dagozkien instalazioen egutegi eta ordutegi orokorrak, banatu eta erabil ditzaten. Banaketan gatazkarik balego KUIko presidentek erabakiko du banaketa nola egingo den, KUIko zuzendariak alde aurretik egindako txostenean oinarrituta.



SANTURTZIKO KIROL KLUB ETA ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ARRUNTEN ARAUDI ESPEZIFIKOA

1.- Diru-laguntzen jasotzaileak:

- Herriko kirol-erakundeak: Erakunde eskatzaile guztiak lehiaketa federatuetan edo udalerrriak antolatu ez dituen lehiaketetan izena emanda egon beharko dira.

2.-Lortu nahi diren helburuak:

- a) Kirol elkarteen sarearen garapena finkatzea, zein etorkizunari begira eratu eta sendotutako erakundeetan oinarrituko den, dinamikoak, gizartean bizirik eta ekonomikoki egoera onean dauden erakundeetan hain zuzen.
- b) Herriko klub garrantzitsuen presentzia sendotzea helburu izanik, hedatu, areagotu eta egituratzeko programak babestea, klub horiek, etorkizun hurbilean, herriko kirol-sistema handitu eta sendotzeko oinarriak izango dira eta.
- c) Finantziarioa KUIren aurrekontuaren pentsuan, erakunde horiek jasangarritasun orekatua bideratzeko behar den baliabide ekonomikoen parte bat (mugatua derrigorrean) hain zuzen.

3.- Diru-laguntza eskatzeko betebeharrak:

- a) Legez osatuta egotea.
- b) Herriko Elkarteen Erregistroan izena emanda egotea eta jarduketa eremua Santurtziko udalerrian izatea.
- c) IFK izatea.
- d) Tokiko Administrazioarekin zorretan ez egotea.
- e) Klubak egiten duen publizitatean KUI agertu beharko da babesle gisa.

4.- Diruz lagunduko diren gastuak:

Diruz lagunduko dira 2016an klubaren jarduerarekin zuzenean lotuta dauden gastu guztiak, betiere hurrengo kontzeptu hauei badagozkie:


- Arbitrajea, epaileak, kronometratzaileak eta idazkaritza teknikoak.
- Kirol-langile teknikoak (entrenatzaileak, ordezkariak, fisioterapeutak, medikuak, harrobiaren edo kategoria hauei atxikitakoen koordinatzaileak, administrazioko langileak izan ezik).
- Tasak / altak / Klubaren edo jokalarien kirol-lizentziak izapidetzeko kuotak.
- Txapelketetan/lehiaketetan parte hartzeagatiko/antolatzeagatiko eskubideak.
- Kirol Federazioen kanona (Bizkaia, Euskal Herria, Espainia).
- Lehiaketetan parte hartzeagatiko eskubideak
- Kirol mutualitateen kuotak
- Kirol-aseguruak jasotzeagatiko kuotak
- Klub eta entrenatzaile / begiraleen Erantzukizun Zibileko Aseguruak
- Desplazamenduak (dietak eta erregaiak izan ezik).

- Kirol-instalazioen alokairua.
- Jokalarien ekipamendua
- Mediku-, botikin-, farmaziako material-gastuak.
- Kirol-material teknikoa (material inbentariagarria izan ezik).
- Ostatu-gastuak (jatekoak izan ezik).

Ezin izango dira protokolo, ordezkaritza, janari eta luxuzko gastuak sartu.

** Diru-laguntza eskatzeko beharrezkoak diren agiriak urtarrilean aurkeztuko dira 9,00etatik 14,00etara Kiroldegiaren Administrazio-bulegoetan.*

** Diru-laguntza mota ezberdinak (arrunta, eskola, berezia eta txapelketa eta lehiaketa) gutun-azal banatan eskatu beharko dira, barruan diru-laguntza mota horri dagozkion fakturak eta beharrezkoak diren agiriak dituztelarik.*



KLUBAK PUNTUATZEKO IRIZPIDEAK

► Klubentzako diru-laguntzetan 14 urte edo gehiago duten kirolariak baino ezin izango dira sartu.

◄ 13 urte edo gutxiago duten kirolariak kirol-eskoletarako diru-laguntzetan sartuko dira.

BANAKAKO KIROLA

♣ Klubek banakako kirolerako diru-laguntza eskatzekotan, gutxienez 15 kirolari izan beharko dituzte federatuta edo kirolari gutxiago baldin badituzte, teknikoki maila onargarrian lehiatzeko aukera dutela erakutsi beharko dute.

- Lizentzia federatu bakoitzeko.....2 puntu
- Euskadiko Txapelketan banakako parte-hartzaile bakoitzeko (ez beteranoa).....5 puntu
- Espainiako Txapelketan banakako parte-hartzaile bakoitzeko (ez beteranoa).....10 puntu
- Nazioarteko Txapelketan (ofiziala) banakako parte-hartzaile bakoitzeko..25 puntu
- Federatu beterano bakoitzeko.....puntu 1
- Partaide elbarri bakoitzeko.....puntu 1
- Emakumezko kirolari bakoitzeko.....puntu 1
- KUIko bazkidea den kirolari bakoitzeko.....puntu 1

♣ Lizentzia ez federatuek eta txapelketetarako ez direnek puntu bat jasoko dute.

TALDEKO KIROLA

♣ Klubek talde-kiroletarako diru-laguntza eskatzekotan, gutxienez 2 talde izan beharko dituzte.

- Lizentzia federatu bakoitzeko.....2 puntu
- Erkidegoan desplazamenduak dituen talde federatu bakoitzeko.....10 puntu
- Erkidego artean (zonala) desplazamenduak dituen talde federatu bakoitzeko.....20 puntu.
- Estatuan desplazamenduak dituen talde federatu bakoitzeko.....40 puntu
- Emakumezko talde federatu bakoitzeko.....5 puntu +
- Talde-kirolean parte hartzen duten beterano bakoitzeko.....puntu 1 +
- KUIko bazkidea den kirolari bakoitzeko.....puntu 1 +


ALDERDI ANTOLATZAILEAK

- 1 mailako kirol teknikari bat izateagatik.....8 puntu
- 1 mailako bi kirol-teknikari izateagatik.....16 puntu
- 1 mailako hiru kirol-teknikari edo gehiago izateagatik.....24 puntu
- 2 mailako kirol-teknikari bat izateagatik.....16 puntu
- 2 mailako bi kirol-teknikari izateagatik.....32 puntu
- 2 mailako hiru kirol-teknikari edo gehiago izateagatik.....48 puntu
- 3 mailako kirol-teknikari bakoitzeko.....25 puntu

Gehienez 100 puntu

- Txapelketa parte-hartzailearen bat antolatzen du.....5 ptu/txapelk.....20 punturaino
- Erakusketa torneoak antolatzen ditu.....5 ptu/txapelk.....20 punturaino
- Jardunaldi teknikoak, ikastaroak etab antolatzen ditu...5 ptu/jardun..20 punturaino

♣ Kirolari edo talde batean ezin izango dira entrenatzaile bat baino gehiago 0batu.



KIROL KLUBENTZAKO DIRU-LAGUNTZA INSTANTZIA-ESKAERA

.....jaunak/andreak,
..... NAN zenbakidunak,klubaren
legezko ordezkari gisa (.....IFK zk.), zeinen kirol-modalitatea
.....den

ADIERAZTEN DU

Uste duela Kiroletarako Udal Institutu honek Kirol Klubei eskaintzen dien diru-laguntza programaren onuraduna izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta

ESKATZEN DU

2016 urterako diru-laguntza eman dakiola. Helburu horretarako eskatutako agiriak erantsi egin ditu, eta nik benetakoak direla ziurtatzen dut.


Santurtzin, 2016ko.....ren(e)an

(Erakunde eskatzailearen zigiula eta
Presidentearen sinadura)


Jakinarazpenetarako helbidea eta telefonoa:.....

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiaren jardueri buruzko oroit-txostena
- 2.- Indarrean dagoen denboraldiaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua.
- 3.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzen zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak.
- 4.- Kirolari federatuen zerrenda.
- 5.- Entrenatzaileen zerrenda izenduna eta bakoitzaren maila.
- 6.- Erantzukizun Zibileko aseguruaren errezioboaren fotokopia indarreko urterako.
- 7.- Aurreko urteko Batzar Orokorraren akta, non azalduko den bazkideei klubaren egoera ekonomikoaren berri eman zaiela.




PROIEKTUAREN OROIT-TXOSTENA	
Erakunde eskatzailea:	
Presidentea:	Presidenteordea:
Idazkaria:	Diruzaina:
Bazkide kopurua:	Harremanetarako e-posta: Harremanetarako telefonoa:
Erakunde eskatzaileak antolatutako txapelketak (idatzi izena eta data):	
1- 2- 3- 4-	
Erakunde eskatzaileak antolatutako jardunaldi tekniko edota prestakuntza-ikastaroak (idatzi izena, data eta tokia):	
1- 2- 3- 4-	
Banakako kirolari edo talderen batek parte hartzen duen maila goreneko txapelketa (zehaztu taldea eta kategoria edo kirolaria eta lortutako marka).	
Adierazi zein den klubak aurreko denboraldian izandako alderdirik nabarmenena:	
1-Kirol-arloan: 2-Antolakuntza arloan:	
Adierazi zein den oraingo denboraldi honetarako helburu nabarmenena:	
1- Kirol arloan: 2- Antolakuntza arloan:	



TALDE KIROLA			
Erakunde eskatzailea:			
Taldea	Kategoria	Kirolari kopurua	Entrenatzailearen izena

BANAKAKO KIROLA		
Erakunde eskatzailea:		
Kategoria	Kirolari kopurua	Entrenatzailearen izena
<i>Kadetea gizonezkoa</i>		
<i>Kadetea emakumezkoa</i>		
<i>Gaztea gizonezkoa</i>		
<i>Gaztea emakumezkoa</i>		
<i>Juniorra gizonezkoa</i>		
<i>Juniorra emakumezkoa</i>		
<i>Promesa gizonezkoa</i>		
<i>Promesa emakumezkoa</i>		
<i>Seniorra gizonezkoa</i>		
<i>Seniorra emakumezkoa</i>		
<i>Beteranoa gizonezkoa</i>		
<i>Beteranoa Emakumezkoa</i>		



AURREKONTUAK

AURREIKUSITAKO DIRU-SARREREN AURREKONTUA

KONTZEPTUA

ZENBATEKOA

- Bazkideen kuota edo ekarpenetatik etorritako diru-sarrerak

- Matrikula, kuota, salmenta, alokairu, sarrera eta abarretatik etorritako diru-sarrerak

- KUIren diru-laguntzak.....

- Foru Aldundiak, federazioak edo beste erakunde batek emandako diru-laguntzetatik etorritako diru-sarrerak.....

-Beste diru-sarrera batzuk (Txosna, loteria, hitzarmenak...).....

DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA GUZTIRA.....

AURREIKUSITAKO GASTUEN AURREKONTUA

- Fitxak.....

- Arbitrajeak.....

- Lehiaketetara joateko bidaiak.....

- Garbiketa, telefonoa, bulegoko materiala eta abar.....

- Kirol materiala.....


- Ekipamenduak.....

- Beste gastu batzuk (kontzeptuak zehaztu).....

GASTUEN AURREIKUSPENA GUZTIRA

Santurtzin, 2016koren(e)an

Sin. Presidentea



BANAKAKO KIROLA


KLUBAREN IZENA:

KONTZEPTUA	Kop.	PUNTUAZIOA (KUIk bete beharrekoa)
Kirolari federatuak. ♠		
Parte-hartzaileak Euskadiko txapelketetan ♠		
Parte-hartzaileak Espainiako txapelketetan ♠		
Parte-hartzaileak Europa edo mundu mailako txapelketetan ♠		
Parte-hartzaileak nazioarteko beste lahiaketa batean ♠		
Federatu beterranoak.		
Parte-hartzaile elbarriak		
Parte-hartzaile emakumezkoak		
KUIko bazkideak diren kirolariak		
I Mailako entrenatzaileak (Begiralea) ◆		
II Mailako entrenatzaileak (Eskualdeko entr.) ◆		
III Mailako entrenatzaileak (Nazio mailako entr.) ◆		
Herri-txapelketa antolatzen du. (izena eta data)		
Erakusketa-lehiaketa antolatzen du (izena eta data)		
Jardunaldi teknikoak antolatzen ditu. Data eta gaia		

♠ Kirolarien zerrenda izenduna, **federazioak emana.**

♠ **Federazioaren ziurtagiria** Euskadi, Espainia edota nazioarteko txapelketa ofizialetako parte-hartzaileen zerrenda duena.

◆ 1, 2 edo 3 mailako kirol teknikariaren homologazioaren fotokopia erantsi




TALDE-KIROLA

KLUBAREN IZENA:.....

KONTZEPTUA	Kop.	PUNTUAZIOA (KUIk bete beharrekoa)
Kirolari federatuak ♦		
Erkidegoaren barruan jarduten duten taldeak		
Beste erkidego batzuetan jarduten duten taldeak		
Estatuan jarduten duten taldeak.		
Emakumezko taldeen kopurua.		
Kirolari beteranoen kopurua.		
KUIko bazkideak diren kirolariak		
1 Mailako kirol teknikariak (begiraleak) ♠		
2 Mailako kirol teknikariak (Eskualdeko entrenatzaileak) ♠		
3 Mailako kirol-teknikaria (Nazio mailako entrenatzaileak) ♠		
Parte hartzeko herri txapelketa antolatzen du (izena eta data)		
Torneoa edo erakusketa antolatzen du (izena eta data)		
Jardunaldi teknikoak antolatzen ditu. (izena eta data)		

♦ Kirolarien zerrenda izenduna, federazioak emana.

♠ 1, 2 edo 3 Mailako Kirol Teknikariaren Homologazioaren fotokopia.




ENTRENATZAILEEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	Entrenatzailearen maila teknikoa (I, II, III)

■ *Kirol Teknikariaren Homologazioaren fotokopia aurkeztu ezean, ez da berau puntuatuko.*

Santurtzin, 2016ko.....ren.....(e)an

(Erakunde eskatzailearen zigilua
eta Presidentearen sinadura)



SANTURTZIKO KIROL-ESKOLENTZAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIA

1.-Diru-laguntzen jasotzaileak:

- Herriko kirol-erakundeak: Erakunde eskatzaile guztiak federazio edo eskola-kiroleko lehiaketetan izena emanda egon beharko dira.


Lortu nahi diren helburuak:

- Kirol elkarten sarearen garapena finkatzea, zein etorkizunari begira eratu eta kirol-harrobi zabalean eta sendotutako erakundeetan oinarrituko den, dinamikoak, gizartean bizirik eta ekonomikoki egoera onean dauden erakundeetan hain zuzen.
- Herriko klub garrantzitsuen presentzia sendotzea helburu izanik, hedatu, areagotu eta egituratzeko programak babestea, klub horiek, etorkizun hurbilean, herriko kirol-sistema handitu eta sendotzeko oinarriak izango dira eta.
- Finantziazioa KUIren aurrekontuaren pentsuan, erakunde horien jasagarritasun orekatua bideratzeko behar den baliabide ekonomikoen parte bat (mugatua derrigorrean) hain zuzen.

2.-Diru-laguntza eskatzeko betebeharrak:

- a) Legez osatuta egotea.
- b) Herriko Elkarten Erregistroan izena emanda egotea.
- c) IFK izatea.
- d) Tokiko Administrazioarekin zorretan ez egotea.
- e) **Klubak egiten duen publizitatean KUI agertu beharko da babesle gisa.**

** Diru-laguntza eskatzeko beharrezkoak diren agiriak URTARRILEAN aurkeztuko dira Udal Kiroldegiko bulegoetan 9:00etatik 14:00etara.*



KIROL-ESKOLETARAKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

► Kirol-eskoletarako diru-laguntzetan 13 urte edo gutxiagoko kirolariak baino ezin izango dira sartu.

A. ESKOLA KIROLEAN PARTE HARTZEN DUTEN KIROLARIAK.....2 puntu

B. ESKOLA KIROLEAN PARTE HARTZEN EZ DUTEN KIROLARIAK.....puntu 1

C. KUIko BAZKIDEA DEN KIROLARI BAKOITZEKO.....puntu 1

D. ENTRENAMENDU EGUNAK:

- EGUN 1 : Ikasle kopurua guztira X puntu 1
- 2 EGUN: Ikasle kopurua guztira X 1,5 puntu
- 3 EGUN : Ikasle kopurua guztira X 2 puntu

E. ENTRENATZAILE KOPURUA

- 1 Mailako kirol teknikari bat8 puntu
- 1 Mailako 2 kirol teknikari16 puntu
- 1 Mailako 3 kirol teknikari edo gehiago.....24 puntu
- 2 Mailako kirol teknikari bat.....16 puntu
- 2 Mailako kirol teknikari 2.....32 puntu
- 2 Mailako 3 kirol teknikari edo gehiago.....48 puntu
- 3 Mailako kirol teknikari bakoitzeko.....25 puntu

Gehienez 100 puntu


F.- ESKOLA KIROLEAN PARTE HARTZEN DUEN EMAKUMEZKO BAKOITZEKO PUNTU BAT GEHIAGO.

G.- BARNE LEHIAKETA, SOZIALAK, ESKOLA ARTEKOAK EDO ERAKUSKETAK: 0 puntu lehiaketako (gehienez 30 puntu).

H.- Eskola Olinpiadan laguntzen du.....Egun 1..... 10 puntu
Eskola Olinpiadan laguntzen du.....Hil 1..... 30 puntu

I.- ESKOLA ZENTROETAN DUTEN TALDE BAKOITZEKO:
10 Puntu eskola zentroko: Gehienez 40 puntu.

- Entrenatzaile bera ezin izango da kirolari edo talde bat baino gehiagotan batu.



KIROL ESKOLENTZAKO DIRU-LAGUNTZA INSTANTZIA-ESKAERA

.....jaunak/andreak,
.....NA zenbakidunak,
.....klubaren legezko ordezkari gisa (IFZ zk.), zeinen kirol-
modalitateaden.

ADIERAZTEN DU

Uste duela Kiroletarako Udal Institutu honek **KIROLA ESKOLEI** eskaintzen dien diru-laguntza programaren onuraduna izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta

ESKATZEN DU

2015/2016 denboraldirako diru-laguntza eman dakiola. Helburu horretarako eskatutako agiriak erantsi ditu, eta nik benetakoak direla ziurtatzen dut.


Santurtzin, 2016koren.....(e)an

(Erakunde eskatzailearen zigilua
eta Presidentearen sinadurara)

Jakinarazpenetarako helbidea eta telefonoa:.....

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiaren jarduerari buruzko oroit-txostena
- 2.- Eskola kirolean edo federatuaren parte-hartzaileen zerrenda izenduna, Federazioak edo Foru Aldundiak egina.
- 3.- Kirolarien zerrenda izenduna, KUIko bazkide zk eta bizitoki duten udalerrria barne.
- 4.- Entrenatzaileen zerrenda izenduna eta bakoitzaren maila teknikoa.
- 5.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak.



PROIEKTUAREN OROIT-TXOSTENA

Erakunde eskatzailea:

Presidentea:

Harremanetarako kidea:

Tel.:

E-posta:

Kategoria	Kirolari kopurua	Entrenamendu egunak astean	Adierazi eskola-kirola federatuan edo beste torneoren batean parte hartzen duen	Entrenatzailearen edo entrenatzaileen izena
Umea gizon.				
Umea emak.				
Kimua gizon.				
Kimua emak.				
Benamina giz.				
Benamina em.				
Gazteagoak				

Torneo eta txapelketak, zeinetan parte hartzen duten (idatzi izena, data eta tokia):

- 1-
- 2-
- 3-
- 4-

Adierazi zein izan den aurreko denboraldiaren alderdirik nabarmenena:


1-Kirol-arloan:

2-Antolakuntza-arloan:

Adierazi zein den oraingo denboraldi honetarako planteatutako helbururik nabarmenena:

1-Kirol arloan:


2- Antolakuntza arloan:



PROIEKTUAREN OROIT-TXOSTENA (jarraipena)	
Taldeak ditu hurrengo eskola hauetan:	
1-Eskola.....	Talde kopurua:
2-Eskola.....	Talde kopurua:
3-Eskola.....	Talde kopurua:
4-Eskola.....	Talde kopurua:
Adin hauetarako jardunaldi teknikorik egin duzu? (zehaztu izena, data eta tokia)	
1-	
2-	
Egindako bestelako jarduera batzuk:	
1-	
2-	
Oharrak:	

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiko oroit-txostena.
- 2.- Eskola kirolean edo federatuaren parte-hartzaileen zerrenda izenduna, Federazioak edo Foru Aldundiak egina.
- 3.- Kirolarien zerrenda izenduna, horien KUIko bazkide zenbakia eta udalerria.
- 4.- Entrenatzaileen zerrenda izenduna eta bakoitzaren maila teknikoa.
- 5.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak.



BANAKAKO KIROLA


KLUBAREN IZENA:

KONTZEPTUA	Kop.	PUNTUAZIOA (KUIk bete beharrekoa)
Eskola kirolean parte hartzen duten kirolarien kopurua		
Eskola kirolean parte hartzen ez duten kirolarien kopurua		
KUIko bazkideak diren kirolariak		
Entrenamendu-egunak		
Emakumezko kirolariak		
I Mailako kirol entrenatzaile teknikoa. ♥		
II Mailako kirol entrenatzaile teknikoa. ♥		
III Mailako kirol entrenatzaile teknikoa . ♥		
Eskola Olinpiadan laguntzen du (bai ala ez)		
Barruko txapelketak, sozialak, eskola artekoak edo erakusketak antolatzen ditu.		
Eskoletako taldeak daramatzate		

-Kirol teknikari mailako homologazioaren fotokopia erantsi

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiko oroit-txostena.
- 2.- Eskola kirolean edo federatuan parte hartzen dutenen zerrenda izenduna, Federazioak edo Foru Aldundiak egina.
- 3.- Kirolarien zerrenda izenduna, horien KUIko bazkide zenbakia eta udalerrria
- 4.- Entrenatzaileen zerrenda izenduna eta bakoitzaren maila teknikoa.
- 5.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak.



TALDE KIROLA


Klubaren izena:.....

KONTZEPTUA	Kop.	PUNTUAZIOA (KUIk bete beharrekoa)
Eskola kirolean parte hartzen duten kirolari-kopurua		
Eskola kirolean parte hartzen ez duten kirolari-kopurua		
KUIko bazkideak diren kirolariak		
Entrenamendu egunak		
Emakumezko kirolariak		
I Mailako teknikari kopurua (begiraleak)		
II Mailako teknikari kopurua (eskualde mailako entrenatzaileak)		
III Mailako teknikari kopurua (nazio mailako entrenatzaileak)		
Eskola Olinpiadan laguntzen dute (bai ala ez)		
Barruko txapelketak, sozialak, eskola artekoak edo erakusketak antolatzen ditu.		
Eskoletako taldeak daramatzate		

- Denboraldi honetan indarrean dagoen entrenatzaile-titulu edo karnetaren fotokopia erantsi.

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiko oroit-txostena.
- 2.- Eskola kirolean edo federatuan parte hartzen dutenen zerrenda izenduna, Federazioak edo Foru Aldundiak egina.
- 3.- Kirolarien zerrenda izenduna, horien KUIko bazkide zenbakia eta udalerrria.
- 4.- Entrenatzaileen zerrenda izenduna eta bakoitzaren maila teknikoa.
- 5.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak.




ENTRENATZAILEEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	Entrenatzaileen maila teknikoa (I, II, III)

- Kirol teknikariaren homologazioaren fotokopia aurkeztu ezean, ez da berau puntuatuko.

Santurtzin, 2016ko.....ren.....(e)an

(Erakunde eskatzailearen zigilua
eta Presidentearen sinadura)



SANTURTZIKO PROMOZIO TORNEO ETA PARTE HARTZEKO TXAPELKETETARAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIA

1.-Eremua:

- Oinarri hauen arabera, diru-laguntza Bizitokia Santurtzin duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauei dagozkien diru-laguntzak.

2.- Lortu nahi diren helburuak:

2.1- Udalerrian dauden edo sortzeko aukera duten kirol-modalitateak sustatzea.

2.2- Udalerrri honetako eta ondokoetako herritarrak partaide izateko aukera izatea parte hartzeko torneoen bidez, eta horrela, kirolari pasiboak barik aktiboak izatea eta herriko elkarteen sarean sartzea.

2.3- Kirol elkarteen sarearen garapena finkatzea, zein etorkizunari begira eratu eta sendotutako erakundeetan oinarrituko den, dinamikoak, gizartean bizirik eta ekonomikoki egoera onean dauden erakundeetan hain zuzen.

2.4- Herriko klub garrantzitsuen presentzia sendotzea helburu izanik, hedatu, areagotu eta egituratzeko programak babestea, klub horiek, etorkizun hurbilean herriko kirol-sistema handitu eta sendotzeko oinarriak izango dira eta.

Kirol-modalitate bakoitzeko bakar-bakarrik lagunduko da torneo edota parte hartzeko txapelketa bakarra, jarduera KUIren helburuetarako egokitzat jotzen den kasuetan izan ezik.

3.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

- a) Legez osatuta egotea
- b) Herriko Elkarteen Erregistroan izena emanda egotea.
- c) IFK izatea
- d) Tokiko Administrazioarekin zorretan ez egotea.
- e) Egiten den publizitatean KUI agertu beharko da babesle gisa.
- f) Santurtziko KUI antolatzen diren ekitaldi ofizial guztietan sartu beharko da, aurkezpen- edo amaiera-ekitaldiak direla edo sari-banaketa egitekoak direla.
- g) Ekitaldian KUIren ordezkariaren presentzia onartzea, hala badagokio.

4.- Deialdia, epeak eta eskaerak.

Urtero Santurtziko Kiroletarako Udal Institutua Autonomiadun Erakundeak, bere aurrekontuen arabera, Torneo eta Parte Hartzeko Txapelketetarako diru-laguntzak banatzeko deialdia egingo du, bertan arlo horri dagokion kontu-sailaren esleipena zein den adieraziz.

Eskaerak KUI Autonomiadun Erakundeko bulegoetan aurkeztuko dira (Udal Kiroldetgia, Reina Victoria pasealekua z/g) honako oinarri hauekin batera dagoen eskaera ofiziala betez.

Urtero egiten diren ohiko torneoen kasuan, eskaerak **urtarrilean** aurkeztu beharko dira. Salbuespenez, lehenengoz egiten diren torneo eta txapelketetarako, eta diru-laguntzei buruzko araudiari jarraituz, bi hilabete lehenago egin beharko da.

5.- Osorik bete gabeko eskabideak edo akatsen bat dutenak.

Eskabideek aipatutako betekizunak betetzen ez badituzte, interesatuei hamar eguneko epean, jakinarazpena jaso duten egunean zenbatzen hasita, emandako hutsak zuzentzeko eskatuko zaie eta hala egin ezean, eskabidea ezetsi eta izapiderik gabe artxibatuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 92/30 Legea aldarazi zuen urtarrilaren 13ko 1999/4 Legearen 71.1 artikulua onduz.

6.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

Promozio torneoen kasuetan honako oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak jardueraren **oste osoaren %75ekoak izango dira gehienez**

Parte hartzeko txapelketan, berriz, jarduera osoaren %100eraino hel daitezke.

Emandako diru-laguntza bankuko transferentziaren bidez ordainduko da, **alde aurretik emandako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion legezko eta jatorrizko fakturak aurkeztuta.**

Torneo eta txapelketetan hurrengo kontzeptu hauek **lagunduko dira diruz:**

- Arbitrajea, epaileak, kronometratzaileak eta idazkaritza teknikoak.
- Sariak eta garaikurrak.
- Publizitate gastuak
- Txapelketa edo lehiaketan parte hartzeagatiko kanona.
- Egin beharreko torneo edo lehiaketaren erantzukizun zibileko aseguruaren kuota.
- Desplazamenduak (dieta eta erregaiak izan ezik).
- Egin beharreko lehiaketaren mediku-gastuak.
- Antolatu beharreko lehiaketarako beharrezkoa den kirol-material teknikoa (material inbentariagarria izan ezik).
- Ostatu-gastuak (jatekoak izan ezik).
- Askotariko gastuak. Betiere zehaztuta badaude eta antolatu beharreko torneo edo lehiaketarekin zuzeneko harremana badute (DYA, balizamenduak, muntaketa, alokairuak eta abar).

Bertan ezin izango dira protokolo, ordezkaritza, janari eta luxuzko gastuak sartu.

7.- Hautatzeko eta balorazio-irizpideak

Kasu guztietan kontuan hartuko da aurkeztutako torneo eta txapelketen kalitatea. Zehatz-mehatz aintzat hartuko da zuzeneko eta zeharreko onuradun kopuruan izan dezakeen eragina. Horrez gain, aintzat hartuko da torneo eta txapelketek komunikabideetan duten zabalkundea eta Santurtziko udalerrira ezagutarazteko emandako laguntza.

8.- Diru-laguntzekin lotutako beste laguntza batzuk.

KUIk eskuz ematen dituen zenbatekoak ez ezik, diru-laguntzarekin batera garaikurrak, baliabide material edota giza baliabideak ere eskaini ahal izango ditu, jarduerok hobeto ateratze aldera, eta Autonomiadun Erakundearen aukeren arabera.

9.- Diru-laguntzen onuradunen konpromisoak.

9.1. Diruz lagundu den jarduera gauzatzea.

9.2. KUI Autonomiadun Erakundearen aurrean jarduera burutu dela egiaztatzea, bai eta diru-laguntza jasotzeko ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete egin direla ere.

9.3. Emandako diru-laguntzekin lotuta egin beharreko jarduketetarako prest agertzea, eskatzen dioten informazio guztia emanez.

9.4. KUIri helburu bererarako jasotako bestelako diru-laguntza guztien berri eman.

9.5. Diru-laguntza eskatzen denean IFK aurkeztea.

9.6. Emandako funtsa behar bezala erabili egin dela justifikatzea legezko eta jatorrizko fakturen bidez.


10.- Publizitatea.

Diru-laguntza jasotzeak berorren onuraduna den erakunde edo pertsona fisikoa behartzen du **beren-beregi jarduera horretarako egiten den publizitatean, jardueraren izaera edozein dela, KUI Autonomiadun Erakundearen laguntza jaso dela adieraztera euskaraz eta gartzelaniaz**, KUIk emandako logotipoa eta guzti, hala badagokio.

1. Ez betetzea eta jasotakoa bueltatzeko betebeharra

Hurrengo kasu hauetan jasotako kopurua, eta hala badagokio diru-laguntza ordaindu zenetik berandutze-interesa ere itzuliko da:

- Diru-laguntza zertarako erabili den azaltzeko betebeharrean huts egitea.
- Diru-laguntza honako oinarrietan eskatzen diren baldintzak izan gabe jasotzea.
- 2. artikuluan adierazitako betebeharretan huts egitea edo jarduerak egitean horiei ezarri beharreko araudia ez betetzea.
- Diruz lagundu den jarduera aldatzea arrazoirik gabe, betiere KUI Autonomiadun Erakundearen irizpideei jarraituz.
- Jasotako dirua emakidaren ebazpenean zehaztutako helbururako ez, baizik eta beste baterako erabiltzea.




TORNEO ETA TXAPELKETETERAKO ESKABIDEA

IZEN – ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS	
HELBIDEA DIRECCION	
HARREMANETARAKO TELEFONOA-HELBIDE ELEKTRONIKOA TELEFONO DE CONTACTO - EMAIL	
ORDEZKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN IZENA NOMBRE DE LA ENTIDAD REPRESENTADA	
IFK / C.I.F.	
ZERTARAKO EMAN DEN DIRU-LAGUNTZA (Markatu X batez) APARTADO PARA EL QUE SE FACILITA LA SUBVENCION (marcar con una X)	
PROMOZIORAKO TORNEOAK TORNEOS DE PROMOCION	<input type="checkbox"/>
PARTE HARTZEKO TXAPELKETAK CAMPEONATOS PARTICIPATIVOS	<input type="checkbox"/>
TORNEO EDO TXAPELKETAREN IZENA ETA EDIZIOA NOMBRE Y EDICION DEL TORNEO O CAMPEONATO	
ERAKUNDE ANTOLATZAILEA ENTIDAD ORGANIZADORA	
JARDUERAREN DATA FECHA DE CELEBRACION	
TOKIA EDO INSTALAZIOA LUGAR O INSTALACION A CELEBRAR	
TORNEOAREN AURREKONTUA GUZTIRA PRESUPUESTO TOTAL DEL TORNEO	Euro
PUBLIZITATE GASTUAK GASTOS DE PUBLICIDAD	Euro
KIROL MATERIALERAKO GASTUAK GASTOS DE MATERIAL DEPORTIVO	Euro
EPAITZE GASTUAK GASTOS DE ARBITRAJES O JUECES	Euro
SARI EDO GARAUKURRETARAKO GASTUAK GASTOS EN PREMIOS O TROFEOS	Euro
Askotariko gastuak (zehaztu) DYA, muntaketa, balizamendua, aseguruua... Gastos varios (especificar) DYA, montajes, balizamiento, seguro...	Euro

Santurtzin, 2.016ko.....renan.

(Erakunde eskatzailearen zigilua
eta Presidentearen sinadura)



SANTURTZIKO KIROL KLUBENTZAKO EZOHIKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIA

I. Horrelako diru-laguntzak emateko organo eskumenduna Santurtziko Kiroletarako Udal Institutuaren Presidentea da.

II. Nori ematen zaion diru-laguntza: Herriko kirol erakundeei. Erakunde eskatzaile guztiek lehiaketa federatuetan egon beharko dira izena emanda.

III. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak:


- a) Legez osatuta egotea.
- b) Tokiko administrazioarekin zorretan ez egotea.
- c) Zehaztu beharko da zein den indarreko denboraldiaren aurrekontua, ahalik eta zehatzen azalduz gastu zein diru-sarreraren inguruko kontzeptu guztiak. Baldin eta askotariko gastu edo ezohikoen kontu-sailik balego, zehatz-mehatz azaldu beharko litzateke zertan den.

IV. Ezohiko diru-laguntza ezin izango da inolaz ere hurrengo hauetarako erabili:

- a) Kirolariei ordaintzeko, kontzeptu horren pean sariak, arreta eta abar daudelarik.
- b) Protokolo gastuak
- c) Janaria.
- d) KUIko Artezkaritza Batzordeak eskubidea du eskatutako diru-laguntza osoa emateko, parte bat baino ez edo eskaera ez onartzeko.

V. Jasotako diru-laguntzari dagokion zenbatekoaren jatorrizko fakturak urtea amaitu aurretik aurkeztu beharko dira.

Eskaera eta ezohiko diru-laguntza eskatzeko beharrezkoa den dokumentazio zehaztua urtarrilean aurkeztu beharko da. Hala ere, diru-laguntza mota hau urteko beste garai batean beharko balitz, eskaera eta dokumentazioa gutxienez jarduera baino bi hil lehenago aurkeztu beharko lirateke.



EZOHIKO DIRU-LAGUNTZERAKO

INSTANTZIA – ESKAERA ORRIA

.....jaunak/andreak,
..... NAN zenbakidunak,klubaren
legezko ordezkari gisa (.....IFK zk.), zeinen kirol-modalitatea
.....den

ADIERAZTEN DU

Uste duela Kiroletarako Udal Institutu honek Kirol Klubei eskaintzen dien ezohiko diru-laguntza programaren onuraduna izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta

ESKATZEN DU

2016 urterako euroko diru-laguntza eman dakiola, zeinen kostea indarreko denboraldian eurokoa den. Helburu horretarako eskatutako agiriak erantsi egin ditu, eta nik benetakoak direla ziurtatzen dut.

Santurtzin, 2016koren(e)an

(Erakunde eskatzailearen zigilua)

Sin. Presidentea

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- 1.- Aurreko denboraldiaren aurrekontua, superabita edo defizita zehaztuz.**
- 2.- Indarreko denboraldiaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua.**
- 3.- Diruz lagundu behar eta aurrekontuetatik kanpo dagoen gertaeraren azalpena.**
- 4.- Aurreko urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa, jatorrizko fakturen bidez.**

